



AUDIOGILE BERRIAK 2024 - DEIALDIAREN EBAZPENA

2023ko azaroaren 14ean, AUDIOGILE BERRIAK 2024 deialdia argitaratu zen Tabakalera eta EITBko webguneetan, TABAKALERAKO LABORATEGIAN euskarazko soinuazko fikzioa sustatzea duelarik helburutzat.

Aipatutako oinarrien 5.4 atalean aurreikusitakoarekin bat etorriz, batzorde bat eratu zen, egiaztatutako gaitasun profesionala duten TABAKALERA eta EITBko ordezkariekin osatua, deialdiak osatzen duten bi alderdiak baloratzeko.

Batzordeak garaiz eta behar bezala aurkeztutako proiektuen balorazioa egin du, deialdian aipatutako laguntza lortu nahi duten proiektuak hautatzeko, eta oinarrietan ezarritako irizpideekin bat etorriz; CICC / Tabakalerako zuzendari nagusiak, aipatutako batzordeak proposatuta, honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- I. eranskineko taulan zerrendatutako pertsonak AUDIOGILE BERRIAK 2024 deialdiaren bidez aurkeztutako proiektuak garatzeko laguntza jasotzea, deialdiaren oinarrietan jasotako baldintzetan.

Bigarrena.- Lehenengo fasean, proiektuaren garapenari dagokiona, hautatutako proiektu bakoitzari 2.000 €-ko dirulaguntza, eta asesoria profesionalean oinarritutako laguntza jasotzea.

Bigarren fasean, gidoi irabazleari dagokiona, EITBk hautatutako proiektu/gidoi bat ekoiztuko du, deialdian azaltzen diren baldintzak betez.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, S.A.ren webgunean eta eitb.eus-en argitaratzea eta aukeratuei jakinaraztea.

Donostian, 2024ko urtarrilaren 30ean

Edurne Ormazabal Azpiroz
Zuzendari nagusia

Maite Goñi
EITBko Audio eta Digitaleko Zuzendaria

I. Eranskina

1- ENKANTEA, Garazi Urkola / Hodei Arrastoa

2- AUTOPSIK, Xabier Paya Ruiz

3- ERRAUTSAK, Iñaki Cid Larrea

TABAKALERA



KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL
CENTER OF
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eu